

Gipuzkoa orain ala betiko

13.Abe.2021



Aldaketa klimatikoa eta bere inpaktuak gero eta agerikoagoak dira. Batez besteko tenperatura globala 1,5 °C igo daiteke 2030 eta 2052 urteen artean, berotze globalak gaur egungo erritmoan aurrera egiten jarraitzen badu. Zientzialariek iraganean iragarri zituzten klima aldaketa globaletik sortuko ziren ondorioak gertatzen ari dira orain: glaziarrek uzkuritu egin dira, bero-bolada bortitzagoak, landare eta animalien habitatak aldatu egin dira, zuhaitzak lehenago loratzen ari dira. Zer ikusiko dugu urte batzutura Gipuzkoan?

Galdera horri erantzuteko sortzen ari da “Gipuzkoa orain ala betiko” proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentuak finantzatua. Proiektu honetan aldaketa klimatikoak Gipuzkoako eremu adierazgarrietan izango duen eraginaren mapa garatzen ari da.. Bertan klima-aldaketak dakarren arazo jakin batek eremu jakin bati nola eragin diezaiokeen azalduko da eta adituekin horren inguruko hausnarketa bat edukiko dugu, eta gure buruari galdetuko diogu, zer egin dezakegu?

7 eremu izango dira aztergai Gipuzkoako gune natural batzuen inguruko analisisia egin ahal izateko. Duguna tenporala izan daiteke baino guk betiko nahi dugu.

Proiektuaren abaroan adituekin egingo ditugun elkarrizketak atal honetan bertan txertatzen joango gara eta UIK-ko YouTube kanalean eta sareetan zabalduko ditugu.

Destacado:

Orden Destacado:

4

Foro sostenibilidad:

Imagen DSF:

40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK

CURSOS
DE VERANO

SUMMER COURSES

www.uik.eus



- [gipuzkoa](#)
- [aldaketa klimatikoa](#)